



# Itzulpengintza etengabeko eraldaketa teknologikoan murgilduta



Ikastaroaren hizkuntza ofizialak euskara, gaztelania eta frantsesa dira. Itzulpen zerbitzua egongo da ikastaroa hiru hizkuntzetan jarraitu ahal izateko.

**Uzt. 21 - Uzt. 22 2022**

**Kod. I07-22**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2022

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 21 - Uzt. 22 2022

**Kokalekua**

Cité des Arts. Baiona

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



# Azalpena

Teknologia itzulpengintzan eragiten ari den eraldaketa handia da, eta dena hain azkar doan garai honetan eraldaketa horri buruz hausnartzeko eta edukietan sakontzeko guneak sortzea ezinbestekoa da. Ikastaro honetan itzulpengintzaren hainbat ertz ezagutuko ditugu, esperientzia inspiratzaileak eta eztabaidak sortuko ditugu.

Itzulpengintzaren alderdirik teknologikoena ere landuko da, eta teknologian eta hizkuntzetan adituak izango ditugu bi alorren uztartze horri buruzko azalpenak emateko. Itzultzaileentzako erreminta interesgarrienak ezagutzeko tartea izango dugu; eta itzulpen automatikoaren gisako erremintak eskura izan arren, hizkuntzaren eta itzulpenen kalitatea bermatzeko saio bat ere izango da.

Uda Ikastaro honen helburua itzulpengintzarekin lotutako alor ezberdinetako ikuspuntuak batzea da: unibertsitatea, enpresak, autonomoak, teknologiak garatzen dituztenak...

Itzulpengintzaren alorreko profesionalei zuzendua dago, enpresetakoei nahiz autonomoei. Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik teknologiarekin lan egiteko aukera ugariak ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, eta inguruan dituzten esperientzien bidetik ikastekoa.

Merkatuari buruz hitz egiteko tarte bat ere izango da, bai eta epe motz-ertainera begirako sektorearen egoerari buruzko hausnarketa egiteko gune bat ere.

KOKALEKUA : 3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia. Nola iritsi:

<https://drive.google.com/file/d/1cjN4TPBgwGcuZjmioYWcZFbDILgYRFib/view?usp=sharing>

## Helburuak

Itzulpengintzarekin lotutako alor ezberdinetako ikuspuntuak batzea: unibertsitatea, enpresak, autonomoak, teknologiak garatzen dituztenak...

Itzulpengintzaren merkatua hobeto ezagutzea.

Itzultzaileentzat baliagarri diren tresnak ezagutzea.

Itzulpen automatikoak nola funtzionatzen duen ulertzea, teknologia hori egunerokotasunean erabili ahal izateko.

Itzulpengintzaren sektorearen eraldaketari buruzko hausnarketa eta eztabaida bideratzea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



# Programa

## 2022-07-21

09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Itziar Cortés Etxabe</b>   Elhuyar - Hizkuntza eta Teknologia unitateko koordinatzailea
09:45 - 10:45	“Itzulpengintzaren sektorean erabiltzen den teknologiaren diagnosiaren aurkezpena/Presentación del diagnóstico sobre el uso de la tecnología en el sector de la traducción “ <b>Elizabete Manterola Agirrezabalaga</b>   EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) <b>Gabriel Cabrera Méndez</b>   ANETI (Asociación Nacional de Empresas de Traducción e Interpretación) ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> )
10:45 - 11:30	“Itzulpen automatikoa: porque yo lo valgo“ <b>Leire Segura Garralda</b>   Europako Batzordea - Itzultzailea
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:30	“Itzulpen-teknologiaren lanketa unibertsitatean/Las tecnologías de la traducción en la Universidad“ <b>Elizabete Manterola Agirrezabalaga</b>   UPV/EHU - Irakaslea <b>Zuriñe Sanz Villar</b>   UPV/EHU - Irakaslea eta ikertzailea <b>Nora Aranberri Monasterio</b>   UPV/EHU - Irakaslea
13:30 - 15:30	Atsedena
15:30 - 17:00	Mahai ingurua: “El papel de las asociaciones frente a los cambios en el sector/ Itzultzaile-elkarteen rola sektoreak bizi duen aldaketaren aurrean“ <b>Itziar Cortés Etxabe</b>   Elhuyar - Hizkuntza eta Teknologia unitateko koordinatzailea (Moderatzailea) <b>Iris Baeza</b>   APTIC (Associació Professional de Traductors i Intèrprets de Catalunya) - Vocal en la Junta de APTIC <b>Iria Castro Fernández</b>   AGPTI (Asociación Galega de Profesionais da Tradución e da Interpretación) - Vocal en la junta directiva <b>Claudia María Torralba Rubinos</b>   EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarte) - Zuzendaritzako kidea <b>Laura Solana Garzón</b>   ASETRAD (Asociación Española de Traductores, Correctores e Intérpretes) - Presidenta

## 2022-07-22

09:30 - 11:00	“Itzulpen automatikoaren ikerketa eta garapena/Investigación y desarrollo de la traducción automática“  La traducción automática en la investigación <b>Ona de Gibert Bonet</b>   Barcelona Supercomputing Center - Research Engineer  Ikerkuntzatik garapenera, errealitatearen isla <b>Amaia Jauregui Carrera</b>   Elhuyar - Itzulpengintzarako teknologiaren alorreko
---------------	---

koordinatzailea  
**Ander Corral Naves** | Elhuyar - Ikertzailea

---

11:00 - 11:45 "Postedizioa jolas gisa/La posesición, ¿un juego?"

**Ane Goenaga Unamuno** | Elhuyar

---

11:45 - 12:15 Atsedena

---

12:15 - 13:00 "Ikus-entzunezko itzulpena/La traducción audiovisual"

**Imanol González Dueñas** | Itzultzaile, interprete eta bikoizketa-aktore autonomoa

---

13:00 - 15:00 Atsedena

---

15:00 - 16:45 Mahai ingurua: "Itzulpengintza bidegurutzean: Gutenbergetik pantaila digitaletara. Irabaziak eta galerak / La traducción en una encrucijada: de Gutenberg a las tecnologías para la traducción. Ventajas y desventajas"

**Itziar Cortés Etxabe** | Elhuyar - Hizkuntza eta Teknologia unitateko koordinatzailea (Moderatzailea)

**Idoia Santamaría Urkaregi** | Elhuyar - Itzultzailea

**Iñigo Errasti Aranbarri** | Bizkaiko Foru Aldundia - Itzultzailea

**Fernando Rey Escalera** | Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Euskararako Atal Teknikoko burua (itzultzatzaile taldearen arduraduna)

---

16:45 - 17:00 Itxiera

**Itziar Cortés Etxabe** | Elhuyar - Hizkuntza eta Teknologia unitateko koordinatzailea

---

## Zuzendaritza



### **Itziar Cortés Etxabe**

Elhuyar

---

Informatika Ingeniaritzako lizentzia (EHU, 2009) eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra (EHU, 2011) ditu. 13 urte daramatza Elhuyarren lanean, hizkuntza-teknologiaren alorrean. Gaur egun, Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia unitateko koordinatzailea da.

## Irakasleak




### **Nora Aranberri Monasterio**

UPV/EHU

---

Nora Aranberri hizkuntza naturalaren prozesamenduari buruzko Ixa ikerketa-taldeko ikertzailea da (<http://ixa.si.ehu.es/>) eta UPV/EHUko Letren Fakultateko irakaslea. Itzulpen automatikoan aditua da eta, arlo horretan, itzulpen-sistemen ebaluazioari, ustiapenari eta eraginari erreparatzen dio. Itzultzaile profesionalen zein erabiltzaile ez-profesionalen erabilera du aztergai nagusi. Bere azterketa-hizkuntzen artean euskara nabarmentzen da. Horrek ahalbidetzen dio aztertzea hizkuntza gutxituentzat itzulpen automatikoak zer aukera eta arrisku dituen. Itzultzaile profesionaleri eta ikastunei zuzenduriko post/edizio tailer praktikoak zuzendu ditu eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin kolaboratzen du.



### **Iris Baeza**

---

Iris Baeza es licenciada en Traducción e Interpretación por la Universidad Autónoma de Barcelona y cuenta con un Máster en Traducción Audiovisual (ISTRAD). Hace doce años que se dedica a la traducción y corrección de textos en el ámbito de la localización, la transcreación y la traducción audiovisual. Además, se encarga de coordinar equipos, de gestionar y elaborar glosarios y guías de estilo, y de llevar a cabo controles de calidad lingüística, siempre de la mano de la tecnología. Tras vivir unos años en Londres, ahora reside en Barcelona y trabaja por cuenta propia desde hace 8 años. Forma parte de la junta directiva de APTIC (Associació de Traductors i Intèrprets de Catalunya) y colabora en algunas comisiones de trabajo. Participar activamente de la vida asociativa le brinda la oportunidad de crecer tanto en el ámbito profesional como en el personal y de luchar por los derechos del colectivo.



### **Gabriel Cabrera Méndez**

Dualia Teletraducciones SL

---

Licenciado en Traducción e Interpretación por la Universidad de Granada. Traductor jurado e intérprete simultáneo de conferencias. Compagina su actividad profesional como traductor e intérprete con la docencia en el Grado en Lenguas Modernas y Traducción, y en el Máster Universitario en Interpretación de Conferencias Orientado a los Negocios de la Universidad de Alcalá. Es responsable de la Calidad de la Interpretación telefónica en Dualia Teletraducciones y miembro del Comité 174 de redacción de normas ISO sobre traducción e interpretación como vocal representante de ANETI. Miembro del grupo de investigación FITISPOs, de la Sociedad Científica de Mérida, premio Internacional de Innovación Docente en 2021 y autor de Mamá, quiero ser intérprete; entre de otras publicaciones.



### **Iria Castro Fernández**

AGPTI

---

Iria Castro Fernández es traductora e intérprete. Se licenció en TeI por la Universidad de Vigo, posteriormente cursó el Máster de comercio internacional y en 2021 obtuvo el título de Especialista en reablado intralingüístico e interlingüístico. Es autónoma desde hace 8 años donde ha podido trabajar en áreas diversas entre las que se encuentran el marketing, software o la interpretación. Es socia de AGPTI desde 2012, primero como estudiante y después como profesional donde ha pasado por puestos como tesorería o secretaria. Ahora mismo es vocal de la junta directiva.



### **Ander Corral Naves**

---

Konputazioan espezializatutako ingeniari informatikoa (2017, UPV/EHU). Konputazio eta Sistema Adimendunen Masterra ere badu (2018, UPV/EHU). Gaur egun, Elhuyarren egiten du lan, Adimen Artifiziala Hizkuntzan unitatean. Bere ikerketa-eremu nagusiak itzulpen automatikoa eta hizketaren teknologiak dira. Itzulpen automatikoan, sare neuronaletan oinarritutako (NMT) itzulpenetan ari da ikertzen, batez ere, hizkuntza-baliabide gutxien dituzten hizkuntzetarako. Hizketaren teknologien alorrean, ikerketa batez ere ahotsaren ezagutzan (ASR) eta ahotsaren sintesian (TTS) ari da egiten.





## **Ona de Gibert Bonet**

Barcelona Supercomputing Center

---

Ona de Gibert es investigadora en el Barcelona Supercomputing Center en el grupo de Traducción Automática, donde contribuye al desarrollo de tecnologías del lenguaje para lenguas minorizadas. Graduada en Lenguas y Literaturas Modernas por la UB, tiene un máster en Análisis y Procesamiento del Lenguaje por la UPV-EHU. Su experiencia con la traducción viene desde la implementación de la traducción en el mundo de la empresa hasta la investigación de nuevos métodos en su posición actual. Actualmente también es profesora asociada de dos universidades, la UPF y la UAB.



## **Iñigo Errasti Aranbarri**

Bizkaiko Foru Aldundia

---

Iñigo Errasti Aranbarri, Bilbon jaioa, 1973an. Euskal Filologia (1998, Deustuko Unibertsitatea) eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua (2004, Euskal Herriko Unibertsitatea) ikasi zituen. Lehenik, irakasle aritu zen zenbait urtez, baina, 2005etik hona, itzultzen jardun du, Administrazioan gehienbat. 2006tik, Bizkaiko Foru Aldundian ari da lanean. Horrez gainera, zenbait itzulpen literario ere egin ditu.



## **Ane Goenaga Unamuno**

Elhuyar

---



## **Imanol González Dueñas**

---

Bikoizketa-aktorea, lokutorea eta testu-egokitzaille autonomoa.



## **Amaia Jauregui Carrera**

Elhuyar

---

Informatikan ingeniaria (EHU/UPV, 2008) eta Hizkuntzen Azterketa eta Prozesamendua Masterra (EHU-UPV, 2012) tituluaren jabe. Elhuyarren lanean dihardu 2009 urteaz geroztik eta 13 urteko esperientzia honetan, web-aplikazio ezberdinen analisi eta garapenetan parte hartu du. Gainera, 2020 urteaz geroztik itzulpengintzarako teknologien zerbitzu-lerroko koordinatzailea da.



## **Elizabete Manterola Agirrezabalaga**

UPV/EHU

---

Itzulpengintza eta interpretazio ikasketetan lizentziatu zen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (2004) eta UPV/EHUn egin zuen doktoretza (2012). Letren fakultatean dihardu lanean 2008tik. Itzulpengintza eta interpretazio graduko irakaslea da, eta besteak beste Itzultzaileentzako informatika ikasgaia irakasten du. Itzulpengintza eta teknologia graduondokoa ere irakasle aritu da, Informatikaren hastapenak itzultzaileentzat eta Ordenagailuz lagundutako itzulpena moduluetan. UPV/EHUko TRALIMA ikerketa taldeko partaide da 2010etik eta beste hainbat ikerketa-proiektutan parte hartu du, hala nola TRACE (UPV/EHU) edo EACT (UAB). Ikerketa egonaldiak egin ditu Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-en (AEB, 2013) eta Ottawako Unibertsitateko Itzulpengintza eta interpretazio eskolan (Kanada, 2016). Euskaratik erdaretarako itzulpena du ikergai nagusi, eta euskal literatura itzuliari buruzko katalogoa sortu zuen (<http://www.ehu.eus/ehg/eli/>).



## **Fernando Rey Escalera**

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

---

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean. Zenbait urtez euskara irakasle ibili ondoren, 1988az geroztik itzultzaile lanetan ari da Nafarroako Gobernuan. Igela argitaletxeak aukera emanda, literatura itzulpena salto egin, eta ofizio eta afizio bihurtu zaizkio itzulpengintza eta testuen

zuzenketa. Gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskararako Atal Teknikoko burua da.



### **Claudia María Torralba Rubinos**

---

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua (UPV/EHU, 2017) eta Interpretazioko Masterra (Heriot-Watt, 2018) egin eta gero, itzultzaile eta interprete autonomo lanetan aritu da zenbait urtez. Orain, doktoretza-tesia prestatzen ari da, eta irakasle dihardu EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailean. EIZIEko kide da 2017tik eta Zuzendaritza Batzordeko kide 2021eko Batzar Nagusiaz geroztik.



### **Idoia Santamaría Urkaregi**

---

Elhuyar, Itzultzailea

Euskal Filologian lizentziaduna, itzulpengintzan dihardu 1980ko hamarkadaren amaieratik. Bikoizketarako testuak itzultzen eta egokitzen hasi zen aurrena, eta askotariko testuak itzultzen jarraitu zuen gero. Batik bat alemanetik, ingelesetik eta frantsesetik itzultzen du euskarara zein gaztelaniara, eta euskara eta gaztelaniaren artean, berriz, bi noranzkoetan. 2004ko urtarrilean hasi zen lanean Elhuyarren, eta, itzultzaile, zuzentzaile eta trebatzaile dihardu harrezkeroztik. Trebatzaile gisa, gaztelaniazko ikastaroak ematen ditu euskarazko itzultzaileentzat. Elhuyarren hasi aurretik, Europar Batasuneko Erakundearen Itzulpen Zentroan (Luxenburgon) aritu zen itzultzaile eta zuzentzaile hiru urte eta erdiz. Literatura-lanak ere itzultzen ditu tarteka. Orain arte argitaratutako azkenak (Ingebog Bachmann, Aldibereko, Igela-Erein, 2019 ) 2020ko Itzulpengintzako Euskadi Saria irabazi zuen.



### **Zuriñe Sanz Villar**

---

Zuriñe Sanz Villar itzulpengintzan lizentziatu zen 2008an Heidelberg-eko Unibertsitatean, eta 2015ean, alemanetik euskararako unitate fraseologikoen itzulpenari buruzko doktore-tesia defendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, non lanean diharduen irakasle eta ikertzaile gisa 2011. urtetik. Honako hauek dira bere ikerketa-lerroak: corpusean oinarritutako itzulpen ikasketak, unitate fraseologikoen itzulpena, itzulpengintza eta teknologia eta itzulpengintzaren didaktika. Orain arteko ibilbidean, hiru ikerketa-

egonaldi egin ditu. Lehena 2013an, Mannheim-eko Hizkuntza Alemanaren Institutuan (IDS); bigarrena 2015ean Renon, Euskal Ikasketen Zentroan (Center for Basque Studies), eta hirugarrena Berlineko Humboldt Unibertsitatean, 2017an.



## **Leire Segura Garralda**

Comisión Europea

---

Ikus-Entzunezko Komunikazioa (2012, Nafarroako Unibertsitatea) eta Itzulpengintza eta Interpretazioa (2016, Euskal Herriko Unibertsitatea) ikasi zituen. Iruñeko Centro de Comunicación Internacional S.L. enpresan egin zituen praktika batzuk ikasketak egiten zituen bitartean eta, ikasketak bukatu eta gero, enpresa horretan jarraitu zuen proiektu-gestore eta orraztaile. 2018tik Luxenburgon bizi da: Itzulpen Zuzendaritza Nagusiko Gaztelaniazko Sailako itzultzailea da, Europako Batzordean.



## **Laura Solana Garzón**

---

Desde 2021, Laura preside la Asociación Española de Traductores, Correctores e Intérpretes (Asetrad). Cuenta con una dilatada experiencia como traductora e intérprete ayudando a distintas organizaciones a transformar sus ideas en mensajes multilingües y está habilitada como traductora-intérprete jurada de inglés por el Ministerio de Asuntos Exteriores, de Unión Europea y Cooperación desde 2012.

# Matrikula prezioak

**AURREZ AURRE**

**2022-07-21 ARTE**

---

UNUM - Mugarteko Uda Ikastaroak

0 EUR

---

**ONLINE ZUZENEAN**

**2022-07-21 ARTE**

---

UNUM - Mugarteko Uda Ikastaroak

0 EUR

---

# **Kokalekua**

## **Cité des Arts. Baiona**

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania